

5.BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Produktua bezeroengana iristeko, komunikazio, salmenta eta banaketa kanalak modu estrategikoan erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, komunikazio kanalen bidez IA laguntzaileazagutza emango diogu. Horretarako, webgune propio bat izango dugu, non produktuaren funtzionamendua eta onurak azalduko dira. Gainera, sare sozialak, publizitate digitala eta bideo demoak erabiliko ditugu bezeroek modu praktikoa ikusteko nola funtzionatzen duen eta nola laguntzen duen gure IA laguntzaileak. Bigarren fasean, salmenta kanalen bidez bezeroek zerbitzua kontratatzea erraztuko dugu. Salmentak online egingo dira, harpidetza-sistema baten bitartez, hileko edo urteko ordainketekin. Bezeroei, demo pertsonalizatua eskainiko diegu, zerbitzuaren erabilgarritasuna nola funtzionatzen duen konturatzeko.

Azkenik, banaketa kanalen bidez zerbitzua bezeroaren eguneroko jardunean integratuko da. IA laguntzailea hodeiko plataforma baten bidez eskainiko da, eta hasierako konfigurazioa urrunetik egingo da, bezeroaren telefono-sistemekin eta agenda digitalekin konektatuz. Gainera, laguntza tekniko eta etengabeko actualizaziak eskainiko dira, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko. Prozesu osoa fase desberridinetan banatzen da: lehenik bezeroak produktua ezagutzen du, ondoren interesatzen da, gero erosketa egiten du eta azkenik IA laguntzailea bere negozioan integratzen du.

